



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko ekainaren 27a

85. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/PES-00265. Galdera, pasa den ekainaren 13an Foruzaingoak Martzillako adingabeentzako behaketa eta harrera zentroko adingabeak lekualdatzerakoan izandako jokabideari buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (3. or.).
- 11-25/PES-00266. Galdera, 11-24/MOC-00140 espedientean onetsitako mozioan jasotako Kulturako lanbideen lege-proiektuari buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (4. or.).
- 11-25/PES-00267. Galdera, Kanariar Uharteetan dauden bidaiderik gabeko adingabeen banaketaren gaineko komunikazioei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (4. or.).
- 11-25/PES-00268. Galdera, 2015-2019 legegintzaldian Gobernuko eta/edo enpresa publikoetako edozein kidek Antxon Alonso Egurrolarekin izandako bilerei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (5. or.).
- 11-25/PES-00269. Galdera, 2015etik 2021era bitartean Nafarroako Gobernuko edo enpresa publikoetako kideek Accionak Nafarroan eta Errioxan zuen ordezkari Fernando Merino jaunarekin izandako bilerei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (5. or.).
- 11-25/PES-00270. Galdera, Klima-aldaketa eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 36. artikularen arabera tokiko parte-hartzea eskaini duten energia berriztagarrien proiektuei buruzkoa. Oihan Mendo Goñi jaunak egin du (6. or.).
- 11-25/PES-00271. Galdera, Nafarroako Gobernuak eta haren sozietate publikoek Zeroa Multimedia merkataritza-sozietateari emandako abal eta maileguen arrisku biziaren egungo zenbatekoari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (7. or.).
- 11-25/PES-00272. Galdera, Barasoingo Martín de Azpilcueta HLHIPko azpiegiturei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaia andreak egin du (7. or.).
- 11-25/PES-00273. Galdera, Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloa eta Lehen Hezkuntza egitera Orbaibartik Tafallara joaten diren ikasleen joan-etorriei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaia andreak egin du (8. or.).
- 11-25/PES-00274. Galdera, Barasoingo Martín de Azpilcueta HLHIPko zerbitzu osagarriei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaia andreak egin du (9. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-25/ACOP-00014. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, LGTBI+ Kolektiboaren Harrotasunaren Nazioarteko Eguna dela-eta (11. or.).
- GRP-2/23. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eleduna aldatzea (11. or.).

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00265. Galdera, pasa den ekainaren 13an Foruzaingoak Martzillako adingabeentzako behaketa eta harrera zentroko adingabeak lekualdatzerakoan izandako jokabideari buruzkoa*JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porras jaunak egindako galdera, pasa den ekainaren 13an Foruzaingoak Martzillako adingabeentzako behaketa eta harrera zentroko adingabeak lekualdatzerakoan izandako jokabideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrasek, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako

Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilari Amparo López, idatziz erantzun dezan:

Sare sozialetan bideo bat ikusi ahal izan dugu, ekainaren 13an Martzillako behaketa- eta harrera-zentroko adingabeak lekualdatzeari buruzkoa. Lekualdatze hori Foruzaingoak egin zuen poliziarena ez den autobus batean. Bideoan, bi adingabe ikusten dira, eskuburdirak jarrita, eta haien aurpegia argi eta garbi ikus daiteke. Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten dugu:

- Zer ezaugarri izan ditu lekualdatze horrek?
- Adingabe guztiei jarri al zitzaizkien eskuburdirak? Zergatik?
- Lekualdatze horretan errespetatu al da adingabeekin jarduteko polizia-protokoloa?
- Zure departamentuak ezer egiten al du VOX Nafarroak sare sozialetan eskegitako bideo hori dela-eta, non argi eta garbi ikusten baita 2 adingaberen aurpegia?

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porras

11-25/PES-00266. Galdera, 11-24/MOC-00140 espedientean onetsitako mozioan jasotako Kulturako lanbideen lege-proiektuari buruzkoa

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, 11-24/MOC-00140 espedientean onetsitako mozioan jasotako Kulturako lanbideen lege-proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zertan da kulturako lanbideen lege-proiektua, legebiltzar honek 2024ko urriaren 24an onetsitako mozioan jasotakoa (11-24/MOC-00140 erregistrozenbakia)?

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

11-25/PES-00267. Galdera, Kanariar Uharteetan dauden bidaiderik gabeko adingabeen banaketaren gaineko komunikazioei buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Kanariar Uharteetan dauden bidaiderik gabeko adingabeen banaketaren gaineko komunikazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaión:

– Jaso al du Nafarroako Gobernuak komunikaziorik asiloa eskatu duten eta Kanarietan dauden bidaiderik gabeko adingabeen balizko banaketari buruz, Espainiako Gobernuak adingabe horiek hartu eta horien ardura hartzeko zain?

– Horietako batzuk Nafarroara iritsiko balira, non hartuko lukete ostatu?

Iruñean, 2025eko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00268. Galdera, 2015-2019 legegintzaldian Gobernuko eta/edo enpresa publikoetako edozein kidek Antxon Alonso Egurrolarekin izandako bilerei buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, 2015-2019 legegintzaldian Gobernuko eta/edo enpresa publikoetako edozein kidek Antxon Alonso Egurrolarekin izandako bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Jasota al dauka Gobernuak Antxon Alonso Egurrola jaunarekin bilerarik egin izana 2015-2019 legegintzaldian gobernuko eta/edo enpresa publikoetako edozein kidek?

Iruñean, 2025eko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00269. Galdera, 2015etik 2021era bitartean Nafarroako Gobernuko edo enpresa publikoetako kideek Accionak Nafarroan eta Errioxan zuen ordezkari Fernando Merino jaunarekin izandako bilerei buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, 2015etik 2021era bitartean Nafarroako Gobernuko edo enpresa publikoetako kideek Accionak Nafarroan eta Errioxan zuen ordezkari Fernando Merino jaunarekin izandako bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Bildu al da Nafarroako Gobernuko edo enpresa publikoetako kideren bat Fernando Merino jaunarekin (Accionak Nafarroan eta Errioxan duen ordezkaria) 2015etik 2021era bitartean? Erantzuna baiezkoa bada, adierazi bileraren eguna, toki, bertaratuak eta gaia.

Iruñean, 2025eko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00270. Galdera, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 36. artikulua araberako tokiko parte-hartzea eskaini duten energia berriztagarrien proiektuei buruzkoa

OIHAN MENDO GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihan Mendo Goñi jaunak egindako galdera, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 36. artikulua araberako tokiko parte-hartzea eskaini duten energia berriztagarrien proiektuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihan Mendo Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

NAOn 2022ko apirilaren 1ean argitaratu zen 4/2022 Foru Legea, martxoaren 22koa, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzkoa. Lege horren 36. artikuluan arautzen dira "Sorkuntza

berriztagarriko proiektuak tokiko partaidetzarekin", eta 5. apartatua ezartzen denez, "Artikuluko honetako 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako tokiko partaidetzarako eskaintza nahitaezkoa izanen da sorkuntza berriztagarriko proiektua lurzoru publikoan dagoenean".

4/2024 Legea indarrean sartu zenetik, proiektu eolikoan 105 eskaera daude gutxienez, 700 MW inguruko potentziarekin, bai eta proiektu fotovoltaikoan 130 eskaera ere, 470 MW inguruko potentziarekin.

Proiektu horiei buruzko informazio publikoaren arabera, proiektu horietako eta haien ebakuazio-lineetako asko lurzoru publikoan daude edo lurzoru hori erabiltzen dute, osorik edo hein batean.

Zer prozedura aplikatzen du Nafarroako Gobernuak 4/2022 Foru Legea indarrean sartu zenetik izapidetutako proiektu eoliko eta fotovoltaikoak izapidetzean, lege horren 36. artikuluan ezarritakoa betetzen dela bermatzeko?

4/2022 Foru Legea indarrean sartu zenetik izapidetutako zer proiektu eoliko eta fotovoltaikok eskaini behar zuten lege horren 36. artikuluan adierazitako partaidetza frogagarria?

4/2022 Foru Legearen 36. artikulua araberako tokiko partaidetza eskaini behar zuten proiektu horietako zeinek gauzatu dute eskaintza hori?

Iruñean, 2025eko ekainaren 19an

Foru parlamentaria: Oihan Mendo Goñi

11-25/PES-00271. Galdera, Nafarroako Gobernuak eta haren sozietate publikoek Zeroa Multimedia merkataritza-sozietateari emandako abal eta maileguen arrisku biziaren egungo zenbatekoari buruzkoa

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak eta haren sozietate publikoek Zeroa Multimedia merkataritza-sozietateari emandako abal eta maileguen arrisku biziaren egungo zenbatekoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako hau dio:

Zein da gaur egun arrisku biziaren zenbatekoa Nafarroako Gobernuak eta haren sozietate publikoek Zeroa Multimedia merkataritza-sozietatearekin egindako abal eta maileguetan?

Halakorik baldin badago, zeri dagozkio abalengatik zor diren zenbatekoak eta/edo arrisku-saldak?

Iruñean, 2025eko ekainaren 19an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

11-25/PES-00272. Galdera, Barasoingo Martín de Azpilcueta HLHIPko azpiegiturei buruzkoa

ENKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Barasoingo Martín de Azpilcueta HLHIPko azpiegiturei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Eneka Maiz Ulaiarrek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Barasoingo eta Garinoingo hezkuntza-erkidegoko ordezkariak Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatzea eskatu dute, Barasoingo Martín de Azpilcueta HLHIP eskualdeko ikastetxea izan dadin. Familiek diote onena litzatekeela Orbaibarko ikasleek Tafallako Marqués de la Real Defensa eskualdeko ikastetxe-raino joan behar ez izatea, orain egiten duten moduan, ikasketak egiteko.

• Zer azpiegitura eman beharko litzaioke Barasoingo Martín de Azpilcueta HLHIPri eskualdekoa izan dadin? Eskura ditugun datuen arabera, ikastetxe hori 145 ikasle izatera heldu zen. Era-

gozpenik egonen al litzateke ikastetxeak etorkizunean eskualdeko ikasleak hartzeko?

- Zenbat metro koadro handitu beharko litzateke gutxienez (ikasgelak, erabilera anitzeko espazioa, laguntza-taldearen espazioa, bikoizketak, patioa, jangela eta sukalde-jangela...) Barasoingo ikastetxeak Orbaibarko herrien eskualdekotasuna bere gain hartu ahal izateko?

- Otsailaren 12ko 132/2010 Errege-dekretuaren arabera, erabilera anitzeko eta hezkuntza-laguntzako zer espazio beharko litzuke eskualdeko ikastetxe horrek?

- Ikastetxeetako erabilera anitzeko espazioetarako gutxienezko betekizunei buruzko otsailaren 12ko 132/2020 Errege-dekretuaren arabera, 30 m²-ko erabilera anitzeko gela bat exijitzen da Haur Hezkuntzarako. Lehen Hezkuntzarako, "baimendutako ikaspostuen kopurura egokitutako azalera" behar dela adierazten da soilik, eta ez du zehazten zenbat metro koadro behar diren gutxienez ere. Zer aurreikuspen darabil Hezkuntza Departamentuak?

- Taldeak bikoizteko espazioetarako, gutxienezkoa da espazio bat 6 eskola-unitateko, eta beste

espazio bat laguntza eta errefortzu pedagogikorako. Barasoingo Martín de Azpilcueta HLHIPk erabilera anitzeko 176,16 m²-ko gela bat du, bai eta hiru espazio ere (10,21 m²-ko bi eta 9,95 m²-ko beste bat), eta 67,38 m²-ko liburutegi bat ere bai, bi espazio independente bihurtzeko aukera ematen duena. Espazio horiek aski izanen lirateke? Ba al dago eragozpenik egungo espazio horiek eskualdeko ikasleak har ditzaten?

- Eskola-jantokiari dagokionez, indarreko zer araudik zehazten ditu eskola-jantokietan (arruntetan nahiz eskualdekoetan) jankide bakoitzak behar dituen metro koadroak, bai eta jantokiko sukalondorako behar den espazioa ere, eskola-jantokiko otorduak prestatzeko?

- Barasoingo Martín de Azpilcueta HLHIPko egungo jantokiak 37 m² ditu. Askia al da aurreikusitako ikasleentzat, eskualde-zerbitzua emateko? Zer araudiren arabera?

- Jantokia in situ edo kanpoko zerbitzuarekin izan liteke? Zer araudiren arabera?

Iruñean, 2025eko ekainaren 19an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-25/PES-00273. Galdera, Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloa eta Lehen Hezkuntza egitera Orbaibartik Tafallara joaten diren ikasleen joan-etorriari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloa eta Lehen Hezkuntza egitera Orbaibartik Tafallara joaten diren ikasleen joan-etorriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Eneka Maiz Ulaiarrek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Barasoingo eta Garinoingo hezkuntza-erki-degoko ordezkariak Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatzea eskatu dute, Barasoingo Martín de Azpilcueta HLHIP eskualdeko ikastetxea izan dadin. Familiek diote onena litzatekeela Orbaibarko ikasleak Tafallako Marqués de la Real Defensa eskualdeko ikastetxeraino joan behar ez izatea, orain egiten duten moduan, ikasketak egiteko.

- Orbaibarko ikasleak (Garinoangoak eta Barasoangoak izan ezik) zergatik joaten dira Tafallara, Nafarroako eskola-maparen arabera, Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloa eta Lehen Hezkuntza egitera?

- Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak 82.23 apartatuan jasotzen duenez, Administrazioak ziurtatu behar du Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikasleak bizi diren udalerrian edo udalerrri hurbilenean eskolatuko direla. Orbaibarren, ordea, ez da printzipio hori betetzen ari, Garinoango eta Barasoango ikasleentzat izan ezik. Zergatik?

- Zer ikasle-aurreikuspen darabil Hezkuntza Departamentuak Barasoango Ikastetxea Orbaibarrerako eskualdeko ikastetxea izan dadin (herriz herri xehakatur: Barasoain, Garinoain, Oloritz, Leotz, Orisoain, Puiu eta Untzue)? Zein da aurreikuspen hori egiteko erabilitako datu-iturria?

- Zenbat hezkuntza-unitate aurreikus daitezke?

- Kasu horretan, Orbaibarko zenbat ikaslek hasi zuten eskolatze-aldia Tafallako eskualdeko ikastetxean eta eskubidea izanen lukete ikastetxe horretan Lehen Hezkuntza osoa amaitzeko?

- 2 edo 3 hizkuntza-eredu dituzten ikastetxeetan, Barasoainen adibidez, zenbat eskola-unitate behar dira ikastetxea eskualdekoa izan dadin?

- Eragozpenik egonen al litzateke eskualdeko ikastetxe horrek maila anitzeko irakaskuntza edo talde unitarioak eskaintzeko, hainbat maila gela berean elkartuz?

Iruñean, 2025eko ekainaren 19an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-25/PES-00274. Galdera, Barasoango Martín de Azpilcueta HLHIPko zerbitzu osagarriari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Barasoango Martín de Azpilcueta HLHIPko zerbitzu osagarriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Eneka Maiz Ulaiarrek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, honako

galdera hauek egiten dizkio Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Barasoango eta Garinoango hezkuntza-erkidegoko ordezkariak Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatzea eskatu dute, Barasoango Martín de Azpilcueta HLHIP eskualdeko ikastetxea izan dadin. Familiek diote onena litzatekeela Orbaibarko ikasleek Tafallako Marqués de la Real Defensa eskualdeko ikastetxe-raino joan behar ez izatea, orain egiten duten moduan, ikasketak egiteko.

- Nola aldatuko litzateke Barasoango Martín de Azpilcueta HLHIPko jantokiaren kudeaketa, eskualdekoa balitz?

- Ekonomikoki, nola eraginen lieke aldaketa horrek eguneroko menuaren prezioari eta familien ekarpenari? Zer gertatuko litzateke jantokiko bekekin?

- Nola aldatuko litzateke Barasoingo Martín de Azpilcueta HLHIPko eskola-garraioaren zerbitzua, eskualdekoa balitz?

- Erabil al litezke Barasoaindik igarotzen diren egungo eskola-garraioko lineak?

Iruñean, 2025eko ekainaren 19an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-25/ACOP-00014. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, LGTBI+ Kolektiboaren Harrotasunaren Nazioarteko Eguna dela-eta

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 23an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehena:

1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak aurten ere bat egiten du LGTBI+ Kolektiboaren Harrotasunaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin, zeina 2025eko ekainaren 28an egingen baita, eta sexu-askapenaren bandera jarriko du ikusteko moduko leku batean, legebiltzarrak sexu-aniztasunarekin duen konpromisoaren agerkari.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak LGTBI+ pertsona guztien eskubide guztiak aldeztu jarraitzeko konpromisoa du.

3. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak konkistatutako lege eta eskubideetan aurreratzen jarraitzeko konpromisoa hartzen du, gure gizarteak berdintasunean, aniztasunean eta askatasunean aurrera egingen jarrai dezan.

4. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak herritarrei dei egiten die ekainaren 28a dela-eta antolaturiko mobilizazioetan parte har dezaten. Eta, halaber, bat egin dezaten foru publikoetatik, komunikabideetatik edo sare sozialetatik gaur aniztasunaren aldeko borroka eguna dela ikusarazteko deitzen diren sentsibilizazio eta aldarrikapen ekitaldiekin.

5. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Nafarroako udal guztiei dei egiten die bat egin dezaten Nafarroako Berdintasunerako Institutuak sustatutako LGTBIfobiarik gabeko udalerrien sarearekin.

Bigarrena:

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GRP-2/23. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eleduna aldatzea

2025eko ekainaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko parlamentariak aurkeztutako idazkia, zeinaren bidez Ainhoa Unzu Garate andrea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun izendatu dutela jakinarazten baita, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Adieraztea Ainhoa Unzu Garate andrea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun izendatzearen berri izan duela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

